



# PROWEIN 2020

## Düsseldorf, Alemania

### Informazio gehiago:

María Fernández de Romarategui  
945 14 18 00  
[internacional@camaradealava.com](mailto:internacional@camaradealava.com)

Data: 2020ko martxoaren 15tik 17ra

Lekua: Düsseldorfeko Azoka Esparrua

Maiztasuna: Urtean behin

Sektorea: Mahastizaintza eta Ardogintza  
industriako profesionalak

Izena emateko epea: 2019ko uztailaren 9a

Azokaren webgunea: [www.prowein.com](http://www.prowein.com)

### DEIALDI HONETAN:

Azokaren ezaugarriak

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izena emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **ProWein 2020** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZI Fundazioaren

bitartez. **ProWein**, Ardo eta Edarien Nazioarteko Europako Azoka garrantzitsuen da eta Düsseldorf-eko Azoka Esparruan ospatuko da 2020ko **martxoaren 15etik 17ra**.



# PROWEIN 2020 azokaren izaera

Erakusteta eremua: 68.000 m<sup>2</sup> baino gehiago

Erakusketariak 2019an: 6.900 enpresa 64 herrialdetakoak

Bisitariak 2019an: mundu osoko 61.500 profesional, 142 herrialdetakoak

Azokaren webgunea: [www.prowein.com](http://www.prowein.com)

## AZOKAREN EZAUGARRIAK

Alemania izan zen munduko herrialdeen artean 2018an bolumenean ardo gehien inportatu zuena eta hirugarrena balioan. Hiru herrialde hornitzaile nagusiek (Italia, Frantzia eta Espainia), inportazioen balioari dagokionez, merkatu kuotaren %79 inguru banatzen dute: Italiak du %35, Frantziak %28 eta Espainiak %16.

Esportazio espainiarren hartzaile nagusia 2018an Alemania izan zen, balioari dagokionez (398 milioi euro). Bolumenari dagokionez, 2018an guztira 4,52 milioi hl esportatu ziren, eta batez besteko balioa 88 €/hl izan zen. Horrenbestez, 2018an ikusitako joerek adierazten dute Alemaniak jarraitzen duela izaten gure merkaturik funtsezko eta garrantzitsuena ardoen bezeroen artean.

Azoka Europako garrantzitsuen eta esanguratsuen moduan finkatu da, eta munduan dauden ardo eta beste edari alkoholikoen batzuen ekoizlerik garrantzitsuenak ditu bere erakusketarien artean. ProWein azokan, 2019an, %3,3 handitu da erakusketari kopurua, eta %1,6 bisitariena, iazko datuekin alderatuta.

Azoka profesionalei zuzenduta dago eskusiboki, eta bertara doazen bisitariak banaketa kanala guztietako erosle adituak dira (handizkariak, ostalaritzako industria, catering-a, txikizkariak espezializatuak, inportatzaileak, banaketa kate handiak, etab.)

## EUSKADI BASQUE COUNTRY STAND-a

**Eusko Jaurlaritzak** ProWein 2020 azokan 290 m<sup>2</sup>ko gunea izango du parte hartzeko interesa duten Euskadiko **Mahastizaintza eta Ardogintza Industriako enpresentzat, stand indibidualean edo stand partekatuan**. Stand-a azokako **10 Pabiloian** kokatuko da.

Euskadiko ordezkariak enpresa jakin batzuentzako tokia izango du. Interesa duten enpresa gehiago izanez gero, hautapena egin beharko da, **izena emandako hurrenkari zorrotz** errepikatuz.

**Azokaren ordutegia:** 09:00etatik 18:00ak arte

**Erakusketa eremua:** 68.000 m<sup>2</sup>

**Erakusketariak 2019an:** 6.900 enpresa 64 herrialdetakoak

**Bisitariak 2019an:** mundu osoko 61.500 profesional, horien erdiak nazioartekoak, 142 herrialdetakoak.



# Parte Hartzeko Baldintzak

## Parte hartzeko konpromisoa

## Euskal Ekonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak Ebaluazio inkesta

Ekitaldian parte har dezakete egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek bakarrik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

### Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; **beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.** Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Ekitaldia irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan, merkantzia jasotzeko eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko jardunaldia hasi aurretik behar besteko aurrerapenez.

### Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerrako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standea hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigor ekonomikoren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaio/zaie arau haustea egin du(t)en enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

### Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** antolakuntzaren jarraibideekin bete eta entregatzea.

# Parte Hartzeko Eredua eta Kostua

## PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzaren standean, Euskadiko elikagaien industrian kalitatezko ardoak (Jlko ardoak), Jlko txakolinak edota beste edari alkoholodun batzuk ekoizten diharduten enpresek izango dute lekua.

Merkatu alemaniarrek gure esportazioentzat duen garrantzia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak jarduerari laguntza handia ematea erabaki du, eta parte hartzeko bi era proposatzen ditu:

**Stand INDIBIDUALAren** eredua

**Stand PARTEKATUAren** eredua  
(enpresen artean berezi gabeko guneko komuna)



## PARTE HARTZEKO KOSTUA

Prowein 2020 Azokan parte hartzeak honako kostu hau izango du:

**Stand Indibiduala:** 2.400 € + BEZ 21% = 2.904 €

**Stand Partekatua:** 1.200 + BEZ 21% = 1.452 €

### GARRANTZITSUA:

Lekua mugatua denez, bermatuko den stand indibidualen kopurua 14 izango da.

Stand indibidualak esleitzeko kopuru hori gainditzen bada, modalitate horretarako baldintza izango da lekua egotea, izena eman beharreko datan eta forman eman duten **enpresa guztien presentzia bermatzen** denean.

Stand indibidualak esleitzeko, izena osorik ematearen hurrenkera zorrotzari jarraituko zaio, eta horretarako ezinbestekoa da ordainagiria bidaltzea.



# Eusko Jaurlaritzarekin Parte Hartzea

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria

Izen-emate epea: 2019ko uztailaren 9a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea, Maria Fernández de Romarategui zuzenduta: [internacional@camaradealava.com](mailto:internacional@camaradealava.com)

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.

## IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

## ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: “**Enpresaren izena + PROWEIN 2020**”.

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko azken eguna: **2019ko uztailaren 9a**

## Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

**GARRANTZITSUA:** Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **IZENA EMATEKO FORMULARIOA BEHAR BEZALA BETETA ETA ORDAINAGIRIA BIDALI BEHARKO DIRA**, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen ematea onartu den jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKADIKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.







# Azokan eskainitako zerbitzuak

- 1) Espazioa Kontratatzeari
- 2) Merkantziaren garraioa
- 3) Stand-aren dekorazioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

## ESPAZIOA KONTRATATZEA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako 9 m<sup>2</sup>ko stand indibidual pertsonalizatuetan eta stand partekatuak izango dituen gunen batean banatuko da.

## MERKANTZIAREN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Eusko Jaurlaritzak ez du erantzungo bidalketa bateratutik kanpo bidaltzen diren merkantzien harreraz ezta segurtasunaz ere.

Esaten zaien orduan, **enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko**, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jaso dezakete.

## STAND-AREN DEKORAZIOA

Standa apaintzeko dekorazioa eta oinarritzko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

**Stand Indibidualean:** mahaia eta 3 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin. Harraska erabilera komunitarioko gunen batean egongo da.

**Stand partekatuan:** erakusmahaia eta aulkia, enpresa bakoitzaren errotulua, bileretarako mahaia, biltegia guztiok erabiltzeko hozkailu eta harraskekin eta konexio elektrikoa.

*\* Oharra: Stand indibidual bakoitzean ez dira harraskak sartuko. Gune komun batean jarriko dira. Standetako oinarritzko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro -horien hazkundea edo aldaketa eragiten badu- erakusketakide bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko diona.*

- 4) Kopa eta listu ontzien zerbitzua
- 5) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 6) Stand-a mantentzeko lanak

## KOPA ETA LISTU ONTZIEN ZERBITZUA

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko kopa eta listu ontzien kontratazioa, garbiketa barne. Zerbitzu horren finantzaketa %100ekoa da kopa eta listu ontzien lehen erretailuan. Enpresa ko-erakusleak elementu gehiago kontratatu nahi izanez gero, zerbitzuaren hornitzailearekin zuzenean kudeatu beharko du eskaria, antolakuntzari aditzera eman ondoren, eskaria azokan jasotzea koordinatzeko.

## AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko tramite guztiak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko; bertan, ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira).

## STAND-a MANTENTZEKO LANAK (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, standa egoki mantentzeko lanak. Hala ere, enpresa bakoitzaren ardura izango da norbere stand garbiketa aldetik baldintza egokietan mantentzea.

